

Euskal Herriak Euskaraz !

Ez da dudarik Xiberoko, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko herri abantxu guzien izenen jatorria euskalduna dela. Alta, frantsestuak dira. Inperialista da.

Herrien euskarazko eta frantsesezko izenak erabiltzen dira, baina izen ofizial bakarrak frantsesezkoak dira, eta biak erabiltzen direlarik, bide seinaleetan adibidez, lehentasuna frantsesezkoei emaiten zaie. Zapaltzailea da.

Euskal ortografiarekin idatzitako izen batzu frantsesez ahozkatzean, ez da euskarazko ahozkerarekiko ezberdintasunik eragiten, baina hala ere frantses ortografiarekin idatziak dira, adibidez Banka / Banca. Irrigarria da.

Izenen frantsestearen ondorioz, euskarazko eta frantsesezko ahozkerak gehienetan ezberdinak dira, adibidez Bustintze / Bustince. Kaltegarria da.

Izen ainitzen jatorria, tokiaren izaerari lotua da eta ondorioz izen horiek euskaraz erran nahia badute, aldiz frantsestuak direlarik ez dute erran nahirik. Adibidez “Larresoro”, “larre” eta “soro”-tik dator, aldiz “Larressore”-ek ez du erran nahirik. Zentzugabea da.

Horiek hola, herrien izen euskaldunak frantsestea, euskara eta euskaldunak gutxiestea da. Begirune eskas hori Ipar Euskal Herriko bide bazter guzietan da, herrien frantsestutako izenak seinale tauletan idatziak direlako eta izen hauen ondoan edo azpian doazelako izen euskaldunak. Adeigabea da.

Euskarari eta euskaldunei zor zaien begiruneagatik, eta euskararen erabilpenaren egoera larriagatik, Xiberoko, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko herrien izen euskaldunak ofizializatzea eta izen ofizial bakarrak izaitzea eskatzen dugu. Beharrezkoa da.

Horrela, euskara ez dakitenek euskal ortografia eta ahozkerak ikasten ahalko dituzte, eta Euskal Herriko jatorrizko hizkuntzaren ikasketan lehen urratsak egiten ahalko dituzte. Ongi etorri euskararen mundura. Ederra da.

nafarroa bEHerea



Euskal Herriak Euskaraz !

Ez da dudarik Xiberoko, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko herri abantxu guzien izenen jatorria euskalduna dela. Alta, frantsestuak dira. Inperialista da.

Herrien euskarazko eta frantsesezko izenak erabiltzen dira, baina izen ofizial bakarrak frantsesezkoak dira, eta biak erabiltzen direlarik, bide seinaleetan adibidez, lehentasuna frantsesezkoei emaiten zaie. Zapaltzailea da.

Euskal ortografiarekin idatzitako izen batzu frantsesez ahozkatzean, ez da euskarazko ahozkerarekiko ezberdintasunik eragiten, baina hala ere frantses ortografiarekin idatziak dira, adibidez Banka / Banca. Irrigarria da.

Izenen frantsestearen ondorioz, euskarazko eta frantsesezko ahozkerak gehienetan ezberdinak dira, adibidez Bustintze / Bustince. Kaltegarria da.

Izen ainitzen jatorria, tokiaren izaerari lotua da eta ondorioz izen horiek euskaraz erran nahia badute, aldiz frantsestuak direlarik ez dute erran nahirik. Adibidez “Larresoro”, “larre” eta “soro”-tik dator, aldiz “Larressore”-ek ez du erran nahirik. Zentzugabea da.

Horiek hola, herrien izen euskaldunak frantsestea, euskara eta euskaldunak gutxiestea da. Begirune eskas hori Ipar Euskal Herriko bide bazter guzietan da, herrien frantsestutako izenak seinale tauletan idatziak direlako eta izen hauen ondoan edo azpian doazelako izen euskaldunak. Adeigabea da.

Euskarari eta euskaldunei zor zaien begiruneagatik, eta euskararen erabilpenaren egoera larriagatik, Xiberoko, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko herrien izen euskaldunak ofizializatzea eta izen ofizial bakarrak izaitzea eskatzen dugu. Beharrezkoa da.

Horrela, euskara ez dakitenek euskal ortografia eta ahozkerak ikasten ahalko dituzte, eta Euskal Herriko jatorrizko hizkuntzaren ikasketan lehen urratsak egiten ahalko dituzte. Ongi etorri euskararen mundura. Ederra da.

nafarroa bEHerea

